




EUSKARALDIAREN **SAREA** LANTZEKO URRATSAK - 2022

.....ETA ZABALKUNDERAKO BIDEAK

1. MAILA (Sarea oinarria)

EUSKARALDIA BATZORDEA

Sustatzaile nagusiak (bakoitza bere eragin esparruan eredu)




Partaide izango dira, udaleko euskara teknikaria, euskaraldiko dinamizatzailea (BEB) eta HITZAGUNeko arduraduna. Kaleratuko den esku-orria izango da euskarri nagusia zabalkunderako. Entitateentzat power pointa.

2. MAILA (Exekuzioa)



3. MAILA (sarea handitzen)

Sustatzaile/laguntzaile bereziak (bakoitza bere eragin esparruan eredu)



ZABALKUNDERAKO BIDEAK

Koordinazio orokorrari dagokion zabalkundea:

- Norbanakoei: 2018ko eta 2020ko edizioetako datu base bakarra eta partaideei mailing masiboak (5 edo 6) partaidetza berresteko.
- Norbanakoei: SMSak telefono mugikorren bidez, partaidetza berresteko.
- Entitateei: berdin, partaidetza berresteko.
- Eskualde eta lurralde mailako entitateetara jotzeko ardura.

Herri batzordeari dagokion zabalkundea:

- Norbanako berriak lortzea (portaletan oharra, esku-orria, whatsapp, sarea sozialak..., kartela)
- Entitate berriak lortzea, herri mailan dihardutenak (kartela, HITZARGUNE kanpainako kanalak,..., dinamizatzailereen bisitak).
- Herri mailan girotzea (kartelak, pankartak, kaleko informazio-mahaia, esku-orriak, letra handiak...)
- Toki mailako komunikabideetan zabalkundea: Oiz-mendi, Hitza, Bagabiz, Correo, Deia.
- Norbanakoei eta entitateetako ariguneetako kideei trebakuntza eskaini.

ZABALKUNDERAKO EUSKARRIAK

- **Kartelak eta atarietako oharrak** (entitateen izen-ematea eta partikularren izen-ematea egiteko sasoietan). Urriaren 29ko kartel berezia ostalaritza eta leku publikoetan; leloa “ZERI BEGIRA ZAGOZ? EMOIZU IZENA / AZKENA PUTXI!”, gehituz Euskaraldiaren logoa eta QR-a.
- **E-mail bidez** ((izen ematea on-line egiteko aukera + informaziorako bidea) euskaraldiagnikalumo@gmail.com)
- **Whatsap mezuak** (izen ematea on-line egiteko aukera + informaziorako bidea)
- **Facebook bidez** (izen ematea on-line egiteko aukera + informaziorako bidea)
- **Kaleko mahaia** (ploterra eta beste bi irudi, bata ahobiziarena eta bestea belarriprestarena, termometro itxurarekin adieraziko luketena zenbatek eman duten izena une horretara arte) / (*) **azken orrialdean**.
- **HITZA**: hitzarmenean publizitaterako daukagun kopurutik hiru iragarki (izena emateko garaian, entitateen argazkiak, txapa banaketarako sasoian,...).
- **Oiz-mendi telebista**: izen ematea sustatzeko bideoa (entitateena eta norbanakoena).
- **Letra handiak** (pvc-koak, borobilean, hiru joko), entitateen argazkiak ateratzeko eta ekitaldi publikoetarako. Letrekin batera, “ahobizi” eta belarriprest” irudiak ere badaude.
- **Petoak (8 peto)** begiraleentzat eta kaleko ekitaldietarako (sustatzaileentzat).
- **Pankarta handia, telazkoa** (4 x 2 m2) jaialdietarako eta agerpenetarako. Edukia: EUSKARALDIA (LOGOA) + WEB GUNEA + GERNIKA-LUMON Azaroaren 18tik abenduaren 2ra.
- **Pankarta, lonazkoa** (4 x 2 m2) leku finko baten jartzekoa kalean.
- **Identifikagarriak**: entitateetako ariguneetarako 100 kit, txapak (euskaraldiko 2. Edizioko soberakinak kontuan, 2.000 txapa “ahobizi” eta 200 txapa “belarriprest”).

KRONOGRAMA

Zeregina	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
Euskaraldia batzordea eratu (batzarrak)	31		Batzarra		Irailak 22 (18:30) Batzarra		Batzarra	
Euskarriak prestatu	Hilean zehar							
Entitateen izen ematea/bisitak	16tik aurrera	Bisitak	Bisitak					
Entitateen izen-ematea zabalkundea		- Kartela - Euskarriak - Karpeta	- Kartela - Euskarriak - Karpeta		Izen ematea luzatuda	Izen ematea luzatuda (31ra arte)		
Entitateei jarraipena					Jarraipena	Jarraipena	Jarraipena	
Norbanakoen izen ematea					Irailaren 28tik aurrera	Izen-ematea Turismo Bulegoa	Izen-ematea Turismo Bulegoa	
Zabalkundea (norbanakoen izen-ematea)					Irailak 22 / 23 - Koord. Orok. - Sarea sozialak - Kartela - Oharra	Urriak 1 Euskal jaia Urriak 29 Astelehentxutxu	Azaroak 26 Euskal Lorratzak	
Kaleko mahaia (Mercurio iturriaren inguruan) (*)						Urriaren 1etik aurrera Zapatuetan	Zapatuetan	
Entitateen argazkiak paneletan					Irailak 30 Artekalean	Artekalean	Artekalean	
Txapa banaketa							Banaketa Turismo Bulegoan	
HITZA (iragarkiak)		Iragarkia: entitateen izen-ematea				Urriak 25 Entitateen argazkien bi orrikoa (Hitza)	Informazioa (kopuruak,...)	
Informazioa / formakuntza /					Tailerrak	Tailerrak	Tailerrak	
Burutzapena							Azaroak 18	Abenduak 2

(*) Kaleko mahaia (zapuetan / ploterra eta beste bi irudi, bata ahobiziarena eta bestea belarriprestarena, termometro itxurako zerbait adieraziko lukeen euskarria, zenbatak eman duten izena une horretara arte-edo...). Dinamizatzailearen ardurakoa izango da, Urdaibai Rugby Eskolako laguntzarekin (URE elkartearen lanak: pankartak egokitu, termometroa prestatu, entitateen argazkiak paneletan jartzea, mahaiaren inguruko begiraletza dinamizatzailearekin,...). Kaleko mahairako kronograma:

URRIA

Astel.	Mart.	Eguaz.	Egue.	Barikua	Zapatua	Dom.
					1 izen ematea + entitateen inf. (Euskal Jaia) Ordutegia: 12:30 / 14:30	2
3	4	5	6	7	8 izen ematea + entitateen inf.	9
10	11	12	13	14	15 izen ematea + entitateen inf.	16
17	18	19	20	21	22 izen ematea	23
24	25	26	27	28	29 izen ematea (Urriko azken astel. ataria, berezia). Ordutegia: 18:30 / 20:30	30
31						

AZAROA

	1	2	3	4	5 izen ematea + txapa banaketarako info	6
7	8	9	10	11	12 izen ematea + txapa banaketarako info	13
14	15	16	17	18	19 info	20
21	22	23	24	25	26 info	27
28	29	30	Ab. 1	Ab. 2	Abenduak 3	

Kaleko mahaiaren inguruko zereginetarako baliabideak:

- Mahai bat eta hiru aulki (udaltzainei giltza eskatu eta udaletxe azpiko ate ondoan hartzekoak) eta karpa txiki bat.
- Dinamizatzailea eta bi begirale
- Esku-orriak (jendeari banatzekoak)
- Pankarta jarri
- Ploterra jarri
- Megafonia girotzeko

Ekitaldi bereziak (Egitaraua):

Urriak 1.- Euskal jaia. Kaleko mahai berezia (12.30 / 14:30): ploterra, pankarta, informazioa, esku-orria, zuzenean izena emateko aukera.

Urriak 29.- Urriko Azken Astelehenaren ataria (“astelehentxutxu”, aurreko zapatua; 18:30 / 20:30/Merkurio iturriaren inguruan).
Aurreikusitakoa:

- Euskaraldirako kaleko mahaia, zapatu guztietakoa
- Kalapitaka musika ikastegiko taldeak (kalejira eta Merkurioan amaitu)
- Entitateei identifikagarriak (kit-ak banatu)...?
- Bertso eskolako bi kide (launa bertso)
- Belarriprest baten eta Ahobizi baten konpromisoa jendaurreratzea.

Azaroak 26.- “Euskal Lorratzak”: Segundo Olaeta Musika Eskolak (haurren taldea eta musika taldea) eta Kantagunearen ekitaldia, musikaz eta abestiz osatua, Euskaraldiaren aurreko zapatuan, Merkatu Plazan. Abesti multzo batekin foileto bat prestatzen da partaide eta ikusleen artean banatzeko; musikaz lagunduta abesten dira kanta herrikoi ezagun horiek. Horien artean, “euskaraldiaren abestia” prestatuko dute aipatu bi entitateek.

Abenduaren 2an.- Topaguneak ez du abenduaren 2rako adierazpenik-edo aurreikusi; balorazio agerraldi bat egingo omen da. Aurreikusi dena: urteroko 11 orduko irakurraldia eta jarduera horren amaieran euskaraldiaren amaieraren aipamena...

Abenduaren 3an.- Euskararen Nazioarteko Eguna:

- Urteroko adierazpena irakurtzea
- Euskaraldiko entitateei agiri edo oroigarriren bat banatu (errekonozimendua)
- Abeslaria / Bertsolaria /